



BILBOKO  
HEZKUNTZA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
DE BILBAO

## LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA 2017-2018 ikasturtea

**ESTEBAN URKIAGA,  
LAUAXETAREN ALEGIAK:  
NAZIOA ETA PEDAGOGIA**

**Egilea:** Julen Pagazaurtundua González

**Zuzendaria:** Jon Kortazar Uriarte

Leioan, 2018ko maiatzaren 28an

**AURKIBIDEA**

Abstract.....	2
1. Sarrera.....	4
2. Biografia.....	4
3. Marko historikoa .....	6
4. Marko teorikoa .....	7
5. Metodologia.....	9
5.1 Corpora .....	10
6. Azterketa.....	11
6.1 Alegien sailkapena .....	12
6.2 Pertsonaiak.....	15
6.3 Moraleja .....	17
6.4 Ideologia .....	18
7. Emaitzak eta ondorioak .....	19
8. Aplikazio didaktikoa .....	20
9. Bibliografia.....	26
Eranskinak .....	27

**ESTEBAN URKIAGA, LAUAXETAREN ALEGIAK: NAZIOA ETA  
PEDAGOGIA**

**Julen Pagazaurtundua González**

UPV/EHU

**ABSTRACT**

XX. mende hasierako lehendabiziko Ikastolen sorrerarekin batera, euskaraz idatzitako material didaktikoaren beharra sortzen da. Eskari horri erantzuteko xedearekin, Esteban Urkiaga, Lauaxeta, (1905-1937) euskal idazleak haur eta gazteentzako hainbat alegia idatzi zituen. Ikerketa-lan honen funtsa Lauaxetak argitaratu zituen bederatzi alegiak aztertzea izan da. Azterketa horren bitartez, hiru alegia mota bereizi dira: herri literaturara hurbilpena burutzen dutenak, euskal ideologia nazionalistaren alde aritzen direnak eta eskoletarako, espresuki, material didaktiko gisa sortutakoak. Hezkuntzarako horien aplikagarritasuna narrazio literarioaren, pertsonaien, moralejen eta zantzu ideologikoen azterketaren bitartez ikertu da. Idazleak baliatzen duen euskara zailak, errealitate abstraktu jakinen irudikapena diren pertsonaia sinbolikoak, gaur egun politikoki zuzenak ez diren gaien trataerak eta aditzera ematen diren mezu ideologiko nazionalistak izan dira emaitzarik aipagarrienak. Hortaz, gaurkotasunean, alegiok aplikaezinak direla ikusi da. Ondorioz, alegia ikas-irakas prozesuan txertatzeko bidean, *Soundpainting* teknikaren proposamena aurkeztu da.

*Alegia, Lauaxeta, Herri lirika, Euskal ideologia nazionalista, Hezkuntza.*

La creación de las primeras Ikastolas a principios del siglo XX trajo consigo la necesidad de crear material didáctico en euskera. Para responder a esa demanda, el escritor vasco Esteban Urkiaga, Lauaxeta, (1905-1937) escribió varias fábulas dirigidas a niños y jóvenes. La finalidad de este trabajo de investigación ha sido analizar las nueve fábulas que Lauaxeta publicó. Mediante este análisis, se han podido distinguir tres tipos de fábula: las que ejercen un acercamiento a la lírica popular, las que se muestran a favor de la ideología nacionalista vasca y las que fueron creadas como material didáctico, exclusivamente, para las escuelas. La utilidad de éstas en Educación ha sido investigada a través del estudio de la narración literaria, los personajes, las moralejas y los rasgos ideológicos. El euskera que el escritor utiliza en las fábulas, las representaciones de realidades abstractas mediante personajes simbólicos, el tratamiento de temas que hoy en día son políticamente incorrectos y los mensajes ideológicos nacionalistas que se dan a entender, son los resultados más relevantes. Por lo tanto, se ha deducido que dichas fábulas no resultan aplicables en la actualidad. En consecuencia, con la finalidad de insertar la fábula en el proceso de aprendizaje, se ha presentado la propuesta de la técnica del *Soundpainting*.

*Fábula, Lauaxeta, Lírica popular, Ideología nacionalista vasca, Educación*

The creation of the *Ikastola* at the beginning of the twentieth century, entailed the necessity of teaching material in Basque. To answer that request, the basque writer Esteban Urkiaga, Lauaxeta (1905-1937) wrote some fables directed to children and teenagers. The presented project's aim is to analyse the nine fables that Lauaxeta published. Through this analysis three different fables have been distinguished: the ones that approach to the popular lyrical poetry, the ones in support of the basque national ideology and the ones created as teaching material, exclusively for schools. The utility of these in education has been investigated through the study of literary narration, characters, morals and ideological features. The Basque language which the writer uses in the fables, the representation of abstract realities through symbolic characters, the treatment of topics which are incorrect nowadays and the national ideological messages that are implied, are the most relevant results. Therefore, it has been concluded that the fables mentioned before are not suitable nowadays. In consequence of applying the fable in the learning process, the *Soundpainting* technic has been proposed.

*Fable, Lauaxeta, Popular lyrical poetry, Basque nationalist ideology, Education*

## 1. Sarrera

Gure haurtzaroa eta gaztaroa markatu dituzten eta denon oroimenean gordetzen diren Esoporen *Erbia eta dortoka*, *Sagua eta lehoia* edota *Idia izan nahi zuen igela* bezalako kontakizunek osatzen duten alegien literatura-genero txikiari estimu urria zaio gaur egun, pieza moralista gisa definitu eta; ondorioz, gaitzetsia izan dena.

Hala ere, herri-jakintza gordetzeko eta babesteko tresna zaharrenetarikoa dugu alegiagintza. Euskal Haur eta Gazte Literaturaren jaiotza zor diogun kontakizun mota da, hain zuzen ere. Izan ere, 1804. urtean Bizenta Mogelen esku eta lumatik jaiotako *Ipui Onacek* bidea zabaldu zuen euskal literaturan.

Egungo alegiek funtzio didaktikoa eta gozatzeko estetika betetzen dituzten bezala, XX. mende hasierako II. Errepublika eta Guda Zibileko Euskal Herrian, euskarazko alegiek nazio irudia indartzeko xede ideologikoa zuten; alegia horiek, garaiko ikasleek eta euskal gazteriak nazioarekiko konpromisoa hartzea bilatzen zutelarik.

Gainera, 1914. urtetik aurrera, lehenengo ikastolen sorrerarekin batera, euskarazko material didaktikoaren beharraren ondorioz idatzitako lanen emaria handitu beharra zegoen. Horren erakusle ditugu Esteban Urkiaga *Lauaxeta* (1905-1937) euskal idazlearen hainbat haurrentzako alegi. Proiektu honetan, Lauaxetaren alegia bildumako zenbait idazlanetan oinarrituko naiz; eskola arlora bideratutakoetan, hain zuzen ere. Horrela, Lauaxetaren alegia jakin horiek aztertzea izango dut helburu nagusia. Horretarako, narrazioa bera, pertsonaiak, irakaspena eta horren bidez indartu nahi ziren ideia eta balioak definituko ditut. Aurrez aipatu bezala, xede ideologikoa, azken finean. Modu honetan, XX. mende hasierako Euskal Herriko hezkuntza arlora bideratutako material didaktikoak, gure gaurko sisteman izango lukeen baliagarritasuna alderatzeko aukera izango dut.

## 2. Biografia

Esteban Urkiaga, Lauaxeta, Bizkaiko Laukiz herrian jaio zen 1905eko abuztuaren 3an. Hala ere, oraindik haur txikia zenean, Mungiara joan zen bizitzera. Abade izatea pentsatu bazuen ere, bere osaba abade baten aholkuei jarraituz, Durangoko Jesuitetara abiatu zen. 1921. urtean Loiolan zegoen, Jesusen Lagundiko etxean *iunor* gisa aritzen zelarik. Lauaxetak ikasketa erlijiosoak burutu eta ikasgaiekin batera sortu zitzaion euskalzaletasuna. Jokin Zaitegik, apaiz, olerkari eta itzultzaile gipuzkoarrak sortutako euskal taldeak eragin handia izan zuen Lauaxetarengan eta, batez ere, gerraondoko euskal letretan.

Lauaxeta, Loiolatik Oñara joan zen ikasketak jarraituz. Hala ere, 1928. urte aldera, ikasketak utzi, Mungiara itzuli eta soldadutza egin baino lehenago, etxean sartu zen poesigintzan saiatzeko. 1928. urtean bertan, *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkarian argitaratu zituen bere lehendabiziko idazlanak. Dirudienez, urte berean, *Euzkadi* aldizkarian hasi zen lanean, bere lehendabiziko lana 1929ko otsailaren lehen argitaratutako olerki bat izan zelarik. Beranduago, olerkaria, Evaristo Bustinza, Kirikiño, eta Nikolas Ormaetxearen, Orixe, ondorengoa izan zen zuzendaritzan.

Lauaxetak, *Euzkadi* aldizkariako lanarekin batera, “Euskeraz” deituriko sailean poesia idatzi eta, 1931. urtean, *Bide Barrijak* liburua argitaratu zuen. Hasieran kritika onak jaso zituen arren, denbora igaro ahala eztabaida handia sortu zuen gainerako euskal idazleen artean euskal poesiarako estetika berria bilatzen zuen liburu horrek. Garai horretan Lauaxetak, kazetaritza eta mitinak bere joera politikoa zabaltzeko helburuarekin, tresna gisa baliatzen zituen.

*Euzkadin* “Gaztetxoen Atala” deituriko orrialde baten bitartez, ume eta gazteenganako ardura erakutsiz, ipuinak argitaratzeari ekin zion. Bertan argitaratuko zituen Lauaxetak bere alegiak, irakurle gaztea kontutan izanik. Alegi horiek “Umeentzat ipuinak” deitutako prosazko atalean izango zuten jarraipena. Lauaxetaren joera pedagogikoak, nazionalismo berriak martxan jarritako irakaskuntzaren bide berritik lotzen ziren.

1935. urtean bere bigarren olerki liburua argitaratu zuen: *Arrats Beran. Arrats Beran* liburuaren barruan molde poetiko desberdinak pilatzen dira, batasun ardatzak, batez ere, agerikoak izanik. Beraz, badirudi 1931etik 1935era doan bidean eginiko saiakera guztien berri ematen digula Lauaxetak.

1936ko uztailean Guda Zibila piztu zen. Lauaxeta, gudarien komandante izendaturik, Bilbon jarraitu zuen intendentzia lanetan. Aldizkari frantsesek ez zuten Euskadin kazetaririk eta, Gernikako bonbardaketaren harira, egun batzuk beranduago bi heldu ziren. Lauaxetak frantsesek zekienez, Eusko Jaurlaritzako propaganda burua zen Bruno Mendigurenek, haiek laguntzea agindu zion. Bertan, errebeldeen eskuetan erori zen Lauaxeta. Gasteizera eraman eta, Euskal Gobernuak Vélez izeneko baten ordezkari izateko ahaleginak egin bazituen ere, alferrik izan zen. 1937ko ekainaren 25ean fusilatu zuten Gasteizen Lauaxeta.

### 3. Marko historikoa

XIX. mendean gizarte, politika eta kultura arloan izandako krisialdia hainbat faktorek ekarri zuten. Gizarteko ondorio kaltegarrien artean, euskarari dagokionetan izandako ezkortasuna eta etsipena nabarmentzen dira, horrek atzerakada handia ekarri baitzuen. Hala ere, aurreko politika-erak gaitzesteak nazionalismoaren bizipen argiagoa sortzea eragin zuen. Euskal mugimendu nazionalak barnean erroturik zituen sustraiak hizkuntzan; horrela, hizkuntza nazionalaren aldeko politika eta sentimendua elkarrekin indartuz joan ziren, XIX. mendearen amaieran eta XX.mendearen hasieran (Urkiza eta Uribarren, 2001).

Sabino Arana Goiri (1865-1903) izan zen, era nabarmenean, euskal mugimendu nazional politikoa eta kultura-hizkuntzarena bereganatu eta bultzatu zituena. Alde batetik EAJ-PNV (1895) alderdi politikoa sortu zuen, orduetik gaur arte Euskadiko mugimendu politikorik garrantzitsuenetarikoa izan dena eta; bestetik, euskal nazioaren oinarritzko ezaugarritzat euskara aldarrikatu zuen (Urkiza eta Uribarren, 2001).

Kultur jarduerak zituzten talde antolatuak, zientzia-gizonak, ikastola bezalako kultur mugimenduen gidari ziren politikariak, etab. sentimendu nazionalaren eta; batez ere, hizkuntzaren susperraldi haren ondorio izan ziren. Elizari zegokionez, hizkuntza ofizialtzat latina zuen, baina aldi hauetarako hitzaldiak, abestiak, aitortza-entzuteak eta katekesia euskaraz izaten ziren, honek berebiziko garrantzia izanik euskararen biziraupenean. Horrela, euskararen eta euskal kulturaren aldeko hainbat sustatzaile, apaizak eta erlijiosoak izan ziren (Urkiza eta Uribarren, 2001).

Bestetik, euskal erakundeak, Aldundiak, XX. mendeko lehen bi hamarkadetan zehar hainbateko eragina izaten hasi ziren eskola munduan. (Urkiza & Uribarren, 2001). Ondorioz, 1920an Bizkaiko Foru Aldundiak auzo-eskolak zabaltzea erabaki zuen. Eskola jartzeko, herri edo auzoek baldintza jakin batzuk bete behar zituzten. Inspezio Publikoko Batzordeak harritura ikusi zuen zenbat herririk eta auzok zeukaten eskolaren premia eta; ondorioz, 1920-1932. urteen artean 125 auzo-eskola eraiki ziren (Etxebarria, 2000).

1922an Emakume Abertzale Batza sortu zen, EAJ-PNVren barruan, Elias Gallastegik (1892-1974) bultzatuta eta Irlandan zegoen antzeko erakundea eredu hartuta. Gizonen ondoan, aurretik jartzeko asmorik gabe, hauek politikan egiten zuten lanaren osagarri izatea zen emakumeen elkarte honek zuen helburua (Etxebarria, 2000). Euskal Herrian emakumeen beste mugimendu batzuk ere izan ziren arren, Emakume Abertzale Batza izan zen euskal emakumeak antolatzeke eta etxetik mundura eta ekimen politikora

irteteko abian jarri zen antolaketa. Dena dela, alderdiaren aldeko lana ez ezik, askok lan handia egin zuten hezkuntza arautuaren esparruan ere, euskararen zabalkundean, hain zuzen ere. Modu horretan, hezkuntzaren arloan lortu zuten aurrerapena izan zen emankor, iraunkor eta ezagunena (Bilbao, Ezkurdia, Pérez eta Chueca, 2012).

Horrela, Emakume Abertzale Batzak eta Eusko Gaztedik bultzatuta, Eusko-Ikastola Batza sortu zen Bilbon 1932an. Talde abertzaleek bultzatutako ikastola eta auzo-eskola mugimendu honen barruan, zeregin garrantzitsua izan zuen aurrez aipaturiko Elizak. Bestetik, Batzokietan ematen ziren euskarazko eskolen ondorioz, hizkuntza nazionala berreskuratu zuten hainbat gaztek eta; euskararen sustapenean eta erabileran oso eragin handia izan zuten auzo-eskolei esker, 1932-1933 ikasturtean 6.321 bizkaitar ari ziren ikasketak halako eskoletan egiten (Urkiza eta Uribarren, 2001). Hala ere, Eusko Ikastola Batzako zuzendaritzako erantzukizun karguak alderdiko gizonak bete bazituzten ere, ez zen gauza bera gertatu irakaskuntzaren eguneroko jardunean, ia-ia emakumeen esku bakarrik egon zelako (Bilbao, Ezkurdia, Pérez eta Chueca, 2012).

Literaturaren alorrean, 1918. urtean egindako Eusko Ikaskuntzen Batzarra euskal literaturaren eta hizkuntzaren aldeko urrats handia izan zen. Euskaraz burutzen zen kultur jarduera horretan eragin handia izan zuten gai desberdinei buruzko liburuek; izan ere, kultura aurrerakadaren adierazpena izateaz gain, literatura eremuan bide berriak urratzen zituzten. Horrela, literatur lanek, olerkiek batez ere, etorkizun oso oparoa iragartzen zuten (Urkiza eta Uribarren, 2001).

Euskal kulturaren eta euskararen susperraldia bultzatu zuten jakintsuen artean Resurrección María de Azkue (1864-1951) zegoen; euskal historiaren, tradizioen, linguistikaren, literaturaren, ipuinen eta abarren ikertzaile nagusia eta Euskaltzaindiaren sortzaile eta buru izandakoa. Bestetik, *Euzkadi* egunkariaren lana ere nabarmentzekoa izan zen. Gehiena gaztelaniaz argitaratu arren, euskarari leku zabala egiten zion; bertan literaturak eta olerkiek garrantzia handia zutelarik. Egin-eginean ere, historian zehar olerki eta bertso gehien argitara eman zituen aldizkako argitalpena bihurtu zen, 1931-1937 urteen artean, 3.100 olerki argitaratu zirelarik. Kopuru izugarria zer nolako argitalpena zen eta zein urte gutxitan kaleratu zen kontuan izanez gero (Urkiza eta Uribarren, 2001).

#### **4. Marko teorikoa**

Olerkiei dagokienez eta lan honen aztergaia, berez, bertsoz idatzitako alegiak direnez, generoa izendatzeko termino bat baino gehiago erabili dela kontutan hartu



beharra dago, gure inguruko hizkuntzetan gehienbat latin-mailegua; hau da, *fabula* baliatu delarik. Hala ere, euskaraz beste hitz batzuk erabili dira eta, *fabulak* baino maiztasun handiagoa agertu dute *kontu*, *ipuin* eta *alegia* hitzek euskal literatura-tradizioan (Beldarrain, 2010).

Ibon Sarasolak “Ipuina edo elezaharra, gehienez hitz neurtuetan moldatua, pertsona gisa jokatzen diren animaliak edo gauzak agertzen direna eta ondoriotzat ikasbide edo irakaspen morala ematen duena” proposatzen zuen alegia definitzeko (Sarasola, 2007). Hau da, gehienetan protagonistak animaliak izanda, irakastea helburu duten kontakizunak. Kontakizunak, normalean, amaieran formulatzen den irtenbide morala duelarik (Euskaltzaindia, 2008).

Europar, folklorearekin eta atsotitzekin lotura zuzena duen kontakizun mota honek, Esopo (k.a. 600 - k.a. 564) greziarraren idazlanetan du jatorria (Baldick, 2008). Alegiaren aitzindariak ekialdeko kulturetan aurkitzen diren arren, azpigenero narratibo gisa aipatutako Esopo greziarrak finkatu edo sortu zuen K.a. V. mendean argitaratu zuen bilduman. Alegiaren urrezko garaia XVII. eta XVIII. mendeetan izan zen, Frantziako klasizismoan eta ondorengo neoklasizismoan. Orduan bihurtu zen genero artistikoa, euskarri prezeptiboa hartuz eta garai hartan nagusi ziren argitasunez irakasteko asmoei eta gizarteari on egiteko gogoari erantzunez. Horretaz gain, kritika soziala nabarmena da generoan. (Euskaltzaindia, 2008). Jean de La Fontaine (1621-1695) alegialari frantsesak esaterako, bertsoz idatzitako greziar alegien moldaketa burutsuei esker hauen forma berpiztea lortu zuen (Baldick, 2008).

Alegialari ugari izan arren, lan teorikorik ez dago euskal alegialarien artean (Beldarrain, 2010). Félix María Samaniego (1745-1801) arabarrak esaterako, alegi moralak idatzita, jostatuz irakatsi nahi zuen. Bestetik, Bizenta Mogelek (1782-1854), 1804ean aurkeztutako *Ipui Onak* liburuan argitaratu zituen lehenbiziko aldiz euskarazko alegiak, haur poesiarekiko atxikimendua erakutsiz (Euskaltzaindia, 2008).

Hortaz, eztabaida handia izan da alegiaren hartzailea nor izan den zehaztu nahian: haurrak izan ote diren, helduak izan ote diren. Baita zer gizarte-mailatakoa izan den hartzaile hori: maila apalekoa, goi-mailakoa, eskolagabea, ikasia... (Beldarrain, 2010).

Morten Nøjgaard (1934-) eleberrigile danimarkarrak luze jardun zuen hartzaileari buruzko auzian. Nøjgaardek adierazi zuen zalantzarik gabea dela alegia eskolan erabili izana heziketa-lanabes gisa. Baina alegia inoiz eskolan erabili izanak ez duela inondik ere frogatzen ez zer nolako testuinguruan sortu zen, ezta sorreran nolako publikoa izan zuen ere. Zalantzan jarri zuen, gainera, alegia-haurra binomioa. Gauza onartua da,

beraz, alegia heziketa-lanabes gogokoa izan zela eskolan. Ez dago argi, ordea, zer adinetako ikasleekin erabili zen ezta noiztik erabili zen ere (Beldarrain, 2010).

## 5. Metodologia

Aztertzeko horren konplexua den narrazio lirikoaren azterketa burutzeari dagokionez, oinarritzko koherentzia batetik, olerkia osatzen duten eta bertan irudikatzen den irudizko unibertsoaren atal eratzaileen zein figura desberdinen kategorizazioa ezarri beharra dago (López-Casanova, 1994).

Horrela, narrazio lirikoa, ezaugarri eta adierazle desberdinek markatzen dute; irudikatzen den unibertsoa ulertzeko funtsezkoak diren oinarritzko bektore eta zantzu gisa ulertu ditzakegunak. Adierazleen aniztasun horren barruan izenburua da, zalantzarik gabe, ohikoena. Izenburuak bi funtzio bete ditzake: alde batetik, irakurlearekiko hasierako inpaktu marka gisa ulertu daitekeena, komunikazio bidea irekitzeko baliagarria den eta mezuaren hasiera adierazten duen ikurra eta; beste aldetik, ikuspegi analitiko batetik, pragmatiko-informatibo gisa definitu dezakegun funtzioa. Modu honetan, izenburuak testuarekin mantentzen duen interakzio edo erlazio dialektikoa bereizi daiteke (López-Casanova, 1994).

Bestetik, irudikapenaren eremuak, sortutako eta olerkian aurkezten denaren gakoak finkatu behar ditu; hau da, kontakizunaren unibertso tematikoa. Modu honetan, bektore generiko edo katalizatzaile nagusiaren identifikazioa gertatzen da (gaia); jarraian, gai nagusi hori bigarren mailako beste gai osagarri batean edo bitan eraldatu daitekeelarik (López-Casanova, 1994).

Era berean, azterketa eta tipologia desberdinek diskurtso narratiboko ezinbesteko osagai definitzaileak diren pertsonaiak zorrotasunez sistematizatzeko saiakerak egin badituzte ere, genero lirikoan, ia landu gabeko gaia izan da. Harrigarria egiten zait aipatutako hau; izan ere, pertsonaiak, unibertso poematikoko elementu bereizgarrienetakoak dira eta, bertatik kanpo uzteak, omisio larria eragiten du teoria eta praktika testualean (López-Casanova, 1994).

Azkenik, aipatutako gako tematiko eta pertsonaietatik haratago, olerki guztiek nolabaiteko inpultso eraikitzaile bati erantzuten diote; hau da, mota desberdinetako eredu zehatz batzuetara atxikitzea bilatzen duen barne-legea edo oinarri antolatzailea. Eredu formal horien oinarritzko tipologia bat zehazteko xedearekin, gutxienez, hurrengo aspektuak aztertu behar dira: olerkiko unitate tematikoak, honen luzera, funtzioa eta antolaketa. Aspektu horien gainean lau oinarritzko eskema finkatu daitezke: alde batetik,

eskema lineala; bestetik, eskema analitikoa; jarraian, eskema sintetiko eta; bukaeran, eskema simetrikoa (López-Casanova, 1994).

## 5.1 Corpora

Lauaxetaren bederatzi alegia izango dira nire ikerketa-lan honen funtsa. Aipatutako hauetatik bi, 1935. urtean argitaratutako *Arrats Beran* olerki liburuan aurkitu ditzakegu. Gainerako zazpiak, aldiz, *Euzkadi* egunerokoan 1932ko maiatzetik uztaileko denbora tartean argitaratutako olerki solteak ditugu. Olerki hauek guztiek gauza bat dute batera: haur eta gazteei zuzendutako alegiak dira denak. Jarraian, irakurleak zeren inguruan ari naizen ulertzeko eta ondorengo azterketa jarraitzeko erraztasunak izateko, bederatzi alegia hauetako bakoitzaren azalpen txiki baten bitartez, alegiek aurkezten dituzten argumentuak ezagutzera emango ditut:

### 1. *Otsokorena*

1935ean argitaratutako *Arrats Beran* olerki liburuan agerturiko alegia dugu honakoa. Ibaiaren bestaldean dauden ardiak jateko xedearekin, txaluparen jabea engainatzen duen otsoaren ipuina oso ezaguna da. Horrela, Lauaxetak forma zaildu arren, alegia klasikoaren birmoldaketa egiten du hemen.

### 2. *Udabarriko autorkuntza*

*Otsokorena* alegia bezala, *Arrats Beran* olerki liburuan aurkitzen dugun alegia da hau. Bekatu handiak alde batera utziz, bekatu txikiagatik kondenatua den gizonaren egoera ironikoa aurkezten zaigu honakoan.

### 3. *Ikerren erantzuna*

1932ko maiatzaren 5ean *Euzkadi* egunerokoan argitaratutako alegia. Haur eta gazteengan abertzaletasun hazia eriteko asmo argia duen alegia abertzalekoa dugu. Ironiaren eta umore kutsu baten bitartez, gari hartako maisu arrotzen gogorkeria salatu nahi du olerkariak.

### 4. *Larrosea eta txarrija*

Olerki solteen bildumako eta 1932ko maiatzaren 19an argitaratutako alegia da hau. *Euzkadin*, haurrei zuzendutako *Gaztetxoan Ataleko* hainbat alegik bezala, honek aurkezten duen arrosa ederrenaren hostoen ondorioz hura jateko nahia duen txerriaren gaia ezaguna zaigu eta, sailaren helburu didaktikoarekin bat eginez, alegiak ez du ikaskizunik ahazten.

### 5. *Gaztaya ta katuba*

1932ko maiatzaren 26an plazaratutako alegia dugu *Gaztaya ta Katuba*. Aurreko kasuetan bezala, originaltasunik gabeko gai ezaguna aurkezten zaigu honakoan. Atsoaren arasako gazta jaten zuten saguak hiltzeko helburuarekin, atsoak saskira sartzen du katua. Hala ere, katuak saguak hil beharrean, hauekin batu eta saskiko dena jaten dute. Aipatutako hau guztia metafora hutsa dela argi ikus dezakegu amaierako ikaskizunari esker.

### 6. *Txitxeak eta miruba*

Etxekoen kontra joateko etsaiekin bat egiten duen txitaren kontakizunak argi ditu bere irizpide ideologikoak. 1932ko ekainaren 2an argitaratu zen alegia hau eta; aurrez aurkeztutakoekin batera, olerki solteen bildumako idazlana dugu.

### 7. *Loreak eta eguzkija*

1932ko ekainaren 9an argitaratutako hau adiskidetasunaren garrantzia azpimarratzeko idatzitako alegia da. Honakoan, loreen, eguzkiaren eta hodeiaren arteko hizketaldia oinarri hartuta, bere buruaren kaltea nahi duenari kasurik egin behar ez zaiola ulertzeraz ematen digu Lauaxetak.

### 8. *Mutilxuba eta erlia*

Mezu ideologikoaren menpeko alegia dugu 1932ko ekainaren 16an plazaratutako *Mutilxuba eta erlia* ere. Txarto jokutzen duenak, azkenean, bere zigorra jasoko duela ulertzeraz ematen zaigu alegian zehar.

### 9. *Mutiko gaiztua*

Alegien saila bukatzeko, 1932ko uztailaren 7an alegia oso ideologikoa idatzi eta argitaratzen du Lauaxetak, amaren esana bete ez duen eta, ondorioz, zigorraren beldur den semearen alegoriaren bitartez. Alegien eta garaiko bide ideologikoetan zuzen girotzen den idazlana dugu honakoa.

## 6. Azterketa

Alegia hauen azterketa sakonago bat burutzeko xedearekin hauen egitura eta narrazio bakoitzean kontatzen dena erreparatzeari ekingo diot; hau da, alegia bera aztertzeari. Modu honetan, behin kontakizun bakoitzaren inguruko erreferentzia argiak izanda, askoz ere errazagoa egingo zaigu agertzen diren pertsonai desberdinen eta moralejen atzean existitzen diren metafora eta zantzu ideologikoak bereiztea.

## 6.1 Alegien sailkapena

Alegien egitura eta narrazio bakoitza aztertzeko, bederatzi alegiak hiru multzotan banatuko ditut: a) herri literaturara hurbilpena egiten duten alegiak, b) alegia ideologizatuak eta d) eskolara bideratutako alegiak.

Euskara aldetik kontakizun zailak direnez, hauetan baliatzen diren tekniken helburua narrazioa ulertzeko erreza egitea da. Horrela, bederatzi alegietako diskurtsoak gertaeren maila berebean jartzen direnez eta narratzaileak kontakizuneko pertsonaiak ez direla kontutan hartuta, maila intradiegetikoan kokatzen diren narratzaile heterodiegetikoak direla esan daiteke. Bestetik, alegietako hurrenkerari erreparatuz, denbora hurrenkera kronologikoa ez da hausten; hau da, narrazioek denbora jarraikorra islatzen dute. Horrela, narratzaileek hitz egiten duten bakoitzean *elipsia* ematen da, diskurtsoaren denborak istorioaren denborak baino gutxiago irauten duelarik. Bestalde, alegietako pertsonaien arteko elkarrizketak gertatzen direnean, diskurtsoaren eta istorioaren denborak berdindu egiten dira. Mintzaldi motari dagokionez, singulatiboa kontsideratu daiteke; izan ere, alegia guztietan behin kontatzen da behin gertatu dena. Azkenik, alegia gehienetan, ibaiak, zelaia, lorategiak eta baratzeak bezalako espazio estatiko, ireki eta errealak eta; bestetik, elizak, ikasgelak, etxeak, oilategiak eta gelak bezalako espazio estatiko, itxi eta errealak gailentzen dira. Hala ere, aurrerago zehaztuko da alegia bakoitzean aurkitzen diren espazio motak.

a) Hasteko, alegia klasikoen itzulpengintzan aritzearen ondorioz, Lauaxetaren olerkigintzan herri lirikak duen garrantzia kontutan hartuta, herri literaturara hurbilpena egiten duten *Otsokorena* eta *Udabarriko autorkuntza* alegiak ditugu. Hain zuzen ere, politikoki, alegia desideologizatuak kontsideratu ditzakegunak baina, ideologia moralista bat defendatzen dutenak.

*Otsokorena* alegian I. atalean, ibai sakonaren bestaldera zeharkatzeko eta zelaian bazkatzen ari diren arkumeak jateko, txalupa aproposa dela esaten dio narratzaileak otsoari. II. eta III. ataletan, aldiz, otsoaren eta txaluparen jabearen arteko elkarrizketa dugu. Bertan, ibaia zeharkatzen laguntzearen truke, otsoak txaluparen jabeari hiru egia aitortuko dizkiola esaten dio; azkenean, dena ibaia dohainik zeharkatzeko engainu bat izanik. IV. atalean, behin ibaia zeharkatuta, otsoak arkumeak jaten dituen bitartean, artzainaren kezka ezagutzera ematen da.

Bestetik, *Udabarriko autorkuntzako* narratzaileak, uneoro, elizako atean ate-joka dabilen gizona aurkezten digu; hau, elizara gerturatzen den guztietan bere burua aitortzera doalarik. Apaizari aitortzen dizkion bekatu guztiak, ez dira benetako bekatuak

apaizaren esanetan. Hala ere, azken bekatua aitortzerako orduan, apaiz-ardoa bukatu duela esan eta, apaizak, hori benetako bekatua dela azpimarratzen dio.

Alegia hauetan aurkitu ditzakegun espazioei dagokienez, *Otsokorenan* ibaia eta txalupa dira aipatzekoak. Lehendabizikoa espazio estatikoa, irekia eta erreala den bezala; bigarrena; aldiz, espazio dinamikoa, itxia eta erreala dugu. *Udabarriko autorkuntza* alegian, berriz, eliza bera da aurkitu daitekeen espazio bakarra; espazio estatikoa, itxia eta erreala, hain zuzen ere. Garai hartan Elizak zuen indarra aintzat hartzen bada, hurbiltasuna eragiten duen leku ezaguna dela ere esan daiteke.

b) Bigarrenik, Lauaxetarentzat aberriaren elementu bereizgarriena euskara dela kontutan hartuta, euskaraz aberriagatik idatzi behar dela uste du; izan ere, hizkuntza indartuz aberria indartzen da. Ideia honekin, euskarazko alegien bidez, abertzaletasun hazia ereiteko ahaleginetan dihardu Lauaxetak *Ikerren erantzuna* alegia ideologizatuan, esaterako.

Hasieran, Espainiar estatuko banderaren inguruan hitz egiten dabilen irakaslea aurkezten zaigu, aipatutako estatu hau goratzen eta etengabeko eskerra agertu behar zaiola ikasleei esanez. Hala ere, gainerako ikasle guztiek hitz egiten duten bitartean, Iker ikaslea isilik dabil. Hortaz ohartzean, irakasleak galdetzen dio ea bandera horren mugimenduak zer esaten dion eta, Ikerrek, haizeak gogor jotzen duenaren seinale dela erantzuten dio.

*Ikerren erantzuna* kontakizuneko pertsonaiak biltzen diren ikasgela dugu aipatzeko moduko espazio bakarra; hau da, espazio estatikoa, itxia eta erreala.

d) Azkenik, eskoletarako material didaktiko gisa sortutako alegietan *Larrosea eta txarrija*, *Gaztaya ta katuba*, *Txitxeak eta miruba*, *Loreak eta eguzkija*, *Mutiltxuba eta erlia* eta *Mutikoa gaiztua* alegiak aurkitu ditzakegu. Aurreko alegietan ez bezala, haur eta gazteei zuzendutako sei alegia hauek, moraleja bana aurkezten dute kontakizunaren amaieran. Betiere, ikaskizun moral hutsak diruditen moralejek, barnean mezu guztiz ideologizatuak gordetzen dituztelarik.

*Larrosea eta txarrija* alegian txoritokitik zelaira ateratzen den txerria, laster hasten da bere musturrearekin landako bazter guztiak nahasten. Bat-batean, arrosaren hostoei haginika egiten hasi zaionean, arrosak zergatik bere hostoak hondatu dituen galdetu dio txerriari. Azken honek beste galdera batekin erantzuten dio arrosari, horren ederra zergatik den galdetuz.

*Gaztaya ta katuba* alegian, aldiz, atsoaren etxean gazta jaten dabiltzan saguak hiltzeko xedearekin, atsoak, katua eramaten du etxera eta gazta gorde ohi duen arasan

uzten du. Hala ere, hurrengo egunean, arasara hurbiltzean, katua saguekin batera bertan topatzen du gazta eta urdail guztia jan dituztelarik.

Bestetik, *Txitxeak eta miruba* alegian, hasieran, baratzean dabiltzan oilo eta txiten inguruan mintzatzeko da narratzailea. Denak pozik bizi ziren bertan bat izan ezik. Horietako egun batean, txitak bertatik ihes egin eta mirua ezagutu zuen. Miruak, txitaren konfidantza lortu eta oilategiko ateak irekitzea lortu zuen. Bertan, gainerako txiten artean sartu eta berarekin joanez gero, mendian betirako aske izango direla baieztatzen die miruak. Horrela, miruak eta txitek, oiloak erasotzen eta hiltzen dituzte.

*Loreak eta eguzkija* alegian, berriz, eguzki-izpiak jasotzen ari diren loreak gustora daude ibai-ondoan. Hala ere, pixkanaka, eguzkiak gero eta gehiago berotzen ditu eta hauen hostoak zimeltzen hasten dira. Bat-batean, hodeia agertu eta eguzkiaren aurrean jarriz, itzala eskaintzen die loreei hauen mesedetan. Baina, loreek, eguzki ikusten ez duten aitzakiarekin, hodeiari paretik kentzea esaten diote. Horrela, hodeia negarrez hasi eta bere malkoek loreak busti zituen, behar zuten ura emanez.

*Mutiltxuba eta erlia* alegiari dagokionez, baratzeako lilien artean tximeleta eta erlea hegaka dabilta. Halako batean, mutikoak tximeletaren kolore biziak ikusi ostean, haren bila joatea erabakitzen du. Momentu horretan, erleak arreata deitzen dio mutikoari zoratuta daukan horrek, soilik tximeletaren hautsa dela eta berak ez zela eskaintzen diola esanez. Hala ere, mutikoak ezti-abaraska apurtu eta tximeleta hartzera zihoanean, baratzeako lore guztiak zanpatzen ditu. Jarraian, erleak eztena sartzen dio mutikoari, esker txarreko diruzale hutsa dela aurpegiratuz.

*Mutiko gaiztua* alegian, kaiola baten barruan kantari zegoen txoriari atea inoiz ez irekitzeko agintzen dio amak bere semeari. Hala ere, honek jaramonik egin gabe, kaiolako atea irekitzen du txoria ikusi nahian. Une horretan, txoriak kaiolatik ihes egin eta, mutikoa negarrez ikustean, amak agindutakoa egin izan balu zigorraren beldurrik ez lukeela izango esaten dio.

Azken sei alegia hauetako espazioei dagokienez, *Larrosea eta txarrijan* espazio estatiko, irekiak eta errealak diren zelaia eta lorategia bereizi ditzakegu. *Gaztaya ta katuba* alegian, aldiz, kontakizuneko pertsonaiak biltzen diren atsoaren etxea eta arasa ditugu aipatzeko moduko espazioak; espazio estatikoak, itxiak eta errealak. Jarraian, *Txitxeak eta miruba* alegian, baratzea eta oilategia dira alegia honetan aurkitu daitezkeen espazio bakarrak; espazio estatikoa, irekia eta errealak baratzea eta; espazio estatikoa, itxia eta errealak oilategia, hain zuzen ere. Bestetik, loreak biltzen diren ibai-ondoko eremua eta, eguzkia eta hodeia kokatzen diren zerua ditugu aipatzeko moduko

espazioak *Loreak eta eguzkija* alegian; espazio estatikoak, irekiak eta errealak. Ondoren, *Mutiltxuba eta erlian*, mutikoa, tximeleta eta erlea aurkitzen diren baratzeari dagokionez, espazio estatikoa, irekia eta erreala dela esan daiteke. Azkenik, *Mutiko gaiztua* alegian, txoriaren eta mutikoaren arteko gertakaria jazotzen den gelari dagokionez, espazio estatikoa, itxia eta erreala da.

## 6.2 Pertsonaiak

Orokorrean, *alegia* kontzeptua animaliekin lotzen bada ere, bederatzi alegiak aztertuz gero mota guztietako pertsonaiak aurkitu ditzakegu bertan (Ikusi: *Taula 1*): alde batetik, izaki bizidunak (pertsonak, animalia ugaztunak, hegaztiak, intsektuak eta landareak) eta; bestetik, izaki bizigabeak diren zeruko gorputzak eta fenomeno atmosferikoak, esaterako.

Pertsonaia guzti hauek bi konplexutasun-maila desberdinetan sailkatu daitezke: pertsonaia lauak eta pertsonaia borobilak. Lehendabiziko taldeari dagokionez, aldaketarik ez duten pertsonaiak dira; hau da, hasieran eta amaieran euren ekintzak eta pentsamenduak berdinak direlarik. Bestetik, ordea, ekintzaren bidez edo eraginez eraldatzen diren pertsonaiak ditugu.

Alegiek berezkoa duten baliabide literario ohikoena; hau da, pertsonifikazioa edo *prosopopeya* delakoa, zazpi alegiatan aurkitu dezakegu. Erretorikazko figura honen bitartez, animaliei, landareei, izaki bizigabeei edo kontzeptu abstraktuei pertsonen portaera eta ezaugarriak egozten zaizkie.

Alegia	Izaki bizidunak	Izaki bizigabeak	Pertsonaia nagusia(k)	Bigarren maila	Konplexutasun maila
<i>Otsokorena</i>	Bai	Ez	Otsoa eta txaluparen jabea	Arkumeak eta artzaina	<u>Laua</u> : otsoa eta txaluparen jabea
<i>Udabarriko autorkuntza</i>	Bai	Ez	Gizona eta apaiza	-	<u>Laua</u> : gizona eta apaiza
<i>Ikerren erantzuna</i>	Bai	Ez	Irakaslea eta Iker ikaslea	Ikasleak	<u>Laua</u> : irakaslea eta Iker ikaslea.



<i>Larrosea eta txarrija</i>	Bai	Ez	Arrosa eta txerria	-	<u>Laua:</u> arrosa <u>Borobila:</u> txerria
<i>Gaztaya ta katuba</i>	Bai	Ez	Atsoa eta katua	Saguak	<u>Laua:</u> atsoa, katua eta saguak
<i>Txitxeak eta miruba</i>	Bai	Ez	Txitak eta mirua	Oiloak	<u>Laua:</u> mirua eta oiloak <u>Borobila:</u> txita
<i>Loreak eta eguzkija</i>	Bai	Bai	Loreak eta hodeia	Eguzkia	<u>Laua:</u> eguzkia <u>Borobila:</u> loreak eta hodeia
<i>Mutiltxuba eta erlia</i>	Bai	Ez	Mutikoa eta erlea	Tximeleta	<u>Laua:</u> erlea <u>Borobila:</u> mutikoa
<i>Mutiko gaiztua</i>	Bai	Ez	Mutikoa eta txoria	Ama	<u>Laua:</u> ama eta txoria <u>Borobila:</u> mutikoa

Taula 1

Pertsonaiak, sinesgarriak izateko izena, irudi fisikoa eta izaera eman behar zaizkien fikziozko izakiak dira. Horrela, aztertu berri ditugun alegietako pertsonaia desberdinak sailkatu ostean, printzipioz, ausaz hautatutakoak direla esan genezake; hala ere, herri literaturara hurbilpena burutzeko xedearekin aukeratutako pertsonaiak alde batera utziz, gainerako alegia ideologizatuetan balio sinboliko nabaria duten pertsonaiak aurkitu ditzakegu. Errealitate abstraktu baten adierazpena irudikatzeko xedearekin pertsonaia desberdinak sortzen ditu Lauaxetak; hauen hitzek, jarrerek eta ekintzek definitzen dituztelarik. Modu honetan, pertsonaia sinboliko bat eratzen da, irudikatu nahi duen baloreagatik interesgarria zaiguna. Horrela, gure arreta bederatzi alegietako zenbait pertsonaietan zentratuko dugu.

*Ikerren erantzuna* alegian, Iker ikaslea eta bere irakasle espainiarra dira pertsonaia nagusiak. Haizearen eraginez, eskolan dagoen espainiar estatuko banderaren mugimendua oinarriztat hartuta, irakasleak aberriarekiko maitasuna adierazten duen heinean, Ikerrek, umore eta ironia

kutsu batekin, gertaera horrekiko indiferentzia erakusten du. Modu honetan, irakaslea, aurrez aipatutako errealitate abstraktu baten; kasu honetan, espainiar aberriarekiko abertzaletasunaren pertsonifikazioa kontsideratu dezakegu.

Bestetik, *Gaztaya ta katuba* alegian atsoa, saguak eta katua dira kontutan hartu beharreko pertsonaiak. Atsoak arasan gordetzen duen gazta saguek jaten dute. Hori konpontzeko ahaleginetan, atsoak katua darama etxera, arasan sartzeko eta saguak hiltzeko helburuarekin. Hala ere, katuak arazoa konpondu ordez, gehiago korapilatzen du; izan ere, saguak jan beharrean, arasan gordeta zegoen urdaia jaten du. Horrela, atsoak arasan gordetzen dituen gazta eta urdaia bere ondasun gisa interpretatzen baditugu, katua saguekin batu izanak, arrotza denaren arriskua irudikatzen digu. Aurreko honi oso lotuta aurkitzen dugu *Txitxeak eta miruba* alegian aurkezten zaigun egoera. Izan ere, miruaren (*arrotza*) konfidantza lortu nahian, gainerako oiloak eta txitak (*anaiak*) arriskuan jartzen ditu txita protagonistak. Hemen ere *arrotza* denak ekarri dezakeen arriskua irudikatzen ahalegintzen da alegia.

*Mutiltxuba eta erlia* alegian esaterako, mutikoa eta erlea protagonistak diren bitartean; tximeleta, bigarren mailako pertsonaia dugu. Bertan, tximeletaren ondorioz liluratuta geratu den mutikoaren eta erlearen arteko elkarrizketan, erleak zentzuz jokatzeko esaten dio. Hala ere, mutikoak inongo kasurik egin gabe, abaraska apurtzean eta tximeleta harrapatzean argi ikus daiteke, mutikoa, lukurreriaren pertsonifikazioa dela.

*Mutiko gaiztua* alegian ere antzeko gatazka aurkezten zaigu, irudikatu nahi den kontzeptua desberdina den arren. Bertan, kaiolan kantari dabilen txoriari atea inoiz ez irekitzeko amaren aginduari jaramonik egin gabe, kaiolako atea irekitzen duen mutikoaren egoera aurkezten zaigu. Txoriak kaiolatik ihes egin eta mutikoak, negarrez, zigorra pairatzearekiko sentitzen duen beldurrak adierazten digu amak autoritatea irudikatzen duela. Baita, agindutakoa betetzean, ez dela zigorra pairatzeko beldurrik existitzen.

### 6.3 Moraleja

Moralejari dagokionez, orokorrean, kontakizun historiko edo fikziozko narrazio baten bidez helarazten den ikaskizun morala da. Kasu honetan, alegia batetik ondorioztatu dezakegun ikaskizuna dela esan beharra dago. Moraleja, betidanik, literatura bidez eta fikzioa erabiliz transmititu izan da; entretenitzeaz gain, publikoa hezteko, informatzeko eta moralki hobetu eta garatzeko. Horrela, moralejak haur- eta gazte-literaturan nabariagoak izan dira ia beti.

Aipatutako bederatzi alegia hauen artean mota guztietako moralejak aurkitu ditzakegu. Alde batetik, badira alegiaren amaieran bertan agertzen zaizkigun moralejak eta; bestetik, amaierako ikaskizunik ez duten beste zenbait alegia ere. Bereizketa honetan oinarrituta, *Larrosea eta txarrija*, *Gaztaya eta katuba*, *Txitxeak eta miruba*, *Loreak eta eguzkija*, *Mutiltxuba eta erlia* eta *Mutiko gaiztua* alegiek amaierako moraleja txertatuta duten bitartean; *Otsokorena*, *Udabarriko autorkuntza* eta *Ikerren erantzuna* alegiek ez dute inongo ikaskizunik aurkezten. Hala ere,

horrek ez du esan nahi azken hiru alegia hauek testu barnean nolabaiteko ikaskizun edo zantzu ideologikorik gordetzen ez dutenik.

Horrela, amaierako moraleja duten alegiei erreparatuz gero, aspektu ideologikoz gainezka dauden mezuak bereizi ditzakegu alegia hauen ikaskizunetan. Printzipioz, ikaskizun moral hutsak diruditen zenbait moraleja, mezu guztiz politizatuak direla esan dezakegu alegia hauek idatzi eta argitaratu ziren garaia eta testuingurua kontutan hartzearekin soilik.

*Gaztaya eta katuba* eta *Txitxeak eta miruba* alegietan esaterako, mesfidantza eta ezkortasunaren bidetik, *arrotza* denaren arriskua salatzen da. Lehendabizikoan, *arrotza* denari egiteko bat esleitzeko orduan, onura egin beharrean, gainerako arrotzekin batu eta gure kontrako aliantza sortzen dutela esaten da eta; bigarrenean, *arrotza* denaren laguna izan nahian, *anaiak* saltzearen arriskua aipatzen da. Bestetik, moralejari erreparatzen jarraituz, beste lotura bat ezarri dezakegu *Mutilxuba eta erlia* eta *Mutiko gaitua* alegien artean. Honakoan, mutiko baten jokabide txarra aurkezten zaigu bi kasuetan. *Mutilxuba eta erlia* alegian, jokabide txar horren ondorioz, azkenean, eskarmentua jasotzen dela argitzen zaigu eta *Mutiko gaitua* alegian berriz, ondorioak kontutan hartzea eta negarraren bidez ezer konpontzen ez dela argi edukitzea aipatzen da.

#### 6.4 Ideologia

Behin gobernu errepublikarra ezarrita, garaiko intelektualak, literatura mundua aldatzeko arma gisa erabiltzearen garrantziaz kontzientziaz hasi ziren. Horren harira, garaiko produkzio literarioari zegokionez, poesiak zein alegiak indar handia hartu zuen metodo propagandistiko gisa, errepublikarren zein nazionalen aldetik.

Horrela, Lauaxetak Euskadi eta Espainia bi mundu desberdin gisa aurkezten ditu. Antiespaniolista gogorra dugun idazleak, Sabino Aranarengandik jaso zuen bere ideia klabeenatariko hau. Lauaxetaren esanetan, lehendabizi *anaiak*, euskaldunak, lagundu beharra zegoen eta; ondoren, gainerakoak. *Txitxeak eta miruba* alegian argi ikus dezakegu aipatu berri dudana ideia hau. Bertan, miru arrotzaren laguntasuna lortu nahian dabilen txitak, *anaiak* lagundu beharrean, hauek saltzearen arriskuak salatzen dira.

Bestetik, aipatu berri dudana *anaiei* laguntzearen ideiarekin lotuta, bigarren ondorio politiko bat aurkezten zaigu. Euskaldunek, talde euskaldunetan sartu behar dutela eta; talde horiek sortu behar izatekotan, sortu egingo direla, hain zuzen ere. *Gaztaya eta katuba* alegian, adibidez, egiteko jakin bat *arrotza* denaren eskuetan uzten den unean; onura egin beharrean, gainerako arrotzekin batu eta gure kontrako batasuna sortzen dela ematen da ulertzeraz. Taldearen ideiarekin jarraituz, *Loreak eta eguzkija* alegian, laguntasunaren kontzeptua azaltzen zaigu. Horrela, bere buruaren kaltea nahi duenari jaramonik egin gabe, adiskidetasunaren garrantzia azpimarratzen da.

Lauaxetak, bere aldetik, euskal poema salbatzailean sinesten zuen; euskaraz idazteak, euskara salbatzea eragiten zuelarik. Baina Lauaxetarengan beste matiz bat hartzen du honek. Aberriaren elementu bereizgarriena euskara dela kontutan hartuta, euskaraz aberriagatik idatzi behar da; izan ere, hizkuntza indartuz aberria indartzen da. Ideia honekin, euskarazko alegien bidez, haur eta gazteengan abertzaletasun hazia ereiteko ahaleginetan dihardu Lauaxetak *Ikerren erantzuna* alegian, esaterako. Honakoan, ironiaren eta umore kutsu baten bitartez, II. Errepublika garaiko maisu arrotzen gogorkeria salatzen da.

*Larrosea eta txarrija, Mutiltxuba eta erlia* eta *Mutiko gaiztua* alegien artean nolabaiteko lotura ezarri dezakegu. Normaltasuna apurtzen eta agindutakoa betetzen ez den egoeren isla dira aipatutako hiru hauek. Jokabide desegokien eraginez jasandako zigorrak eta ondorioak ezagutzera ematen dira baita, negarrari eta kexari esker ezer ere ez konpontzen ez dela esaten.

Hortaz, orain arte aztertutako alegia hauen barnean gordetzen diren mezu ideologikoei dagokienez, arrotza baztertearen, *anaiak* laguntzearen, euskal nazionalismoaren, abertzaletasunaren eta aberriaren ideiak indartzen eta goraiatzat dituzten mezuak direla argi dago. Hala ere, Lauaxetaren olerkigintzan herri lirikak parte handia du. *Otsokorena* eta *Udabarriko autorkuntza* alegiek, herri iturrietatik edan eta, herri literaturaren bidea jarraitzen dute; hau da, politikoki alegi desideologizatuak kontsideratu ditzakegu.

*Otsokorena* alegian esaterako, ardiak jateko saiakeran, ibaia zeharkatzen duen txaluparen jabea engainatzen duen otsoaren kontakizuna ezaguna zaigu. Forma aldetiko musikalitatearen zainketa eta ohiko hainbat espresabideren erabilpenak, herri lirikarekiko hurbilpena adierazten digu. Bestetik, *Udabarriko autorkuntza* alegian, bekatu handiak baztertuz, bekatu txikiaren ondorioz kondenatua den gizonaren kontakizunaren bitartez, *aitormena* bezalako formula liturgikoaren eta pertsonai eklesiastikoen inguruko parodia aurkezten zaigu.

## 7. Emaitzak eta ondorioak

Bederatzi alegiak haur eta gazteei zuzenduta egon arren, azpimarratzekoa da horietatik bi bakarrik liburu batean argitaratu zirela; *Arrats Beran* olerki liburuan bildutako eta herri lirikara hurbilpena egiten zuten *Otsokorena* eta *Udabarriko autorkuntza* alegiak, hain zuzen ere. Gainerako zazpiak; hau da, abertzaletasunaren alde aritzen zen *Ikerren erantzuna* eta ikastoletarako, zehazki, material didaktiko gisa idatzitako *Larrosea eta txarrija*, *Gaztaya ta katuba*, *Txitxeak eta miruba*, *Loreak eta eguzkija*, *Mutiltxuba eta erlia* eta *Mutiko gaiztua* alegiak, hiru hilabeteko denbora tartean *Euzkadi* egunerokoan argitaratutako olerki solteak dira. Esan bezala, inongo olerki liburuan bildu ez ziren alegiak.

Narrazioen azterketaren bidez, kontakizuna ulertzeko erreza egiteko xedearekin, diskurtsoak gertaeren maila berebean kokatu, narratzailea kontakizuneko pertsonaia ez izatea, denbora hurrenkera kronologikoa ez haustea, behin gertatutako behin kontatzea eta espazio erreal eta hurbilen deskribapena bezalako egitura sinpleak baliatzen ditu Lauaxetak.

Hala ere, aipatutako baliabide hauek bakarrik dira, neurri batean, lagungarriak alegiak ulertzeko unean. Izan ere, aztertutako alegia gehienetan ulergaitza den Lauaxetaren euskarak, errealitate abstraktu baten adierazpena irudikatzen duten *Ikerren erantzuna* alegiko irakaslea, *Gaztaya ta katuba* alegiko katua eta saguak, *Mutiltxuba eta erlia* alegiko mutikoa... bezalako pertsonaia sinbolikoek, *Udabarriko autorkuntza* alegian umore kutsu batez tratatzen den emakume baten hilketa bezalako politikoki zuzenak ez diren gaien trataerak eta garai hartako ikasleak kontzientziaztea ahalbidetzen zuten *anaien* aldeko borroka edo euskal taldeen sorkuntza bezalako mezu ideologiko nazionalistak tratatzeko eta erabiltzeko zailak dira egungo hezkuntza esparruan.

Hortaz, lehendabiziko Ikastolen sorrerarekin batera euskaraz idatzitako material didaktikoaren eskariaren beharrari erantzuteko idatzitako alegiak badira ere, saiakera horretan Lauaxetaren ahaleginak ez zuen jarraipenik izan. Alde batetik, garai hartan hezkuntza-esparruan txertatzeko baliagarriak izan ez zirelako eta; bestetik, aurrez aipatutako guztiagatik, gaur egun alegia hauek erabiltzea zailtasunak eragingo lituzkeelako.

Azkenik, Bizenta Mogelen *Ipui Onacek* euskal literaturan zabaldu zuen bideari jarraiki, herri-jakintza gordetzeko eta babesteko baliabide zaharrenetarikoa den eta Euskal Haur eta Gazte Literaturaren jaiotza zor zaion alegiaren biziraupena bermatzeko nahia existitu behar da. Hortaz, alegia, moralista ez den beste ikuspuntu batetik tratatuz eta baliabide didaktiko gisa izan dezakeen balioa aitortuz, ikas-irakas prozesuan txertatzeko burutu beharreko aldaketak ikertzeko aukera zabaltzen da orain.

## 8. Aplikazio didaktikoa

Nire proposamen didaktikoa garatzeko Lehen Hezkuntzako ikasgelan alegiak lantzeko xedearekin, *Soundpainting* teknika baliatuko dut. *Soundpaintinga* keinu bitartez burutzen den hizkuntza dugu, sortzen diren konposizioak estrukturatutako inprobisazio bidez egiten direlarik. Dinamika honetan akatsak existitzen ez direla kontutan hartuta proposamen interesgarria kontsideratzen dut. Hau da, *Soundpainterrak* (zuzendaria) eskatutakoa ez egin arren (keinua ikusi ez duzulako edo nahastu egin zarelako), egiten hasi zarenarekin jarraitzeko aukera dago, zuzendu gabe; izan ere, zuzendariak agindutakoa baino interesgarriagoa izan daiteke eskainitakoa.

Sintaxiari dagokionez, *Soundpaintingeko* esaldiak beti orden jakin batean osatuko dira: Lehendabiziko keinuak, agindutakoa **NORK** egin behar duen adieraziko du. Bigarren keinuak, aldiz, **ZER** egin behar den. Bestetik, hirugarren keinuak, agindutakoa **NOLA** egin beharko den markatuko digu (ez da beharrezkoa beti erabiltzea; ez bada egiten, interpreteak erabakiko du nola egin eskatutakoa). Eta, azkenik, laugarren keinuak, egitekoa **NOIZ** burutu behar den adieraziko du.

Proposamenean zehar landuko den alegiari dagokionez, aztertu diren Lauaxetaren alegiak gaurko eskolarako aproposak ez direla kontutan hartuta; alde batetik, erabiltzen den euskara zailaren, errealitate abstraktuaren irudikapena diren pertsonaia sinbolikoen, gaur egun politikoki zuzenak ez diren gaien eta; azkenik, aditzera ematen diren mezu ideologiko nazionalisten ondorioz, politikoki alegia guztiz desideologizatua eta neutroa hautatu dut: *Enara eta beste txoriak*.

Hau aurrera eramateko, taldea osoa, zenbait azpitaldetan banatuko dugu: alde batetik, aurrez aipaturiko eta gainerako azpitalde guztiak zuzentzen dituen zuzendaria dugu eta; bestetik, ahots-orkestra, musikari-orkestra, dantzari-taldea, aktore-taldea eta bertsolari-taldea. Dinamika honetan zehar erabiliko diren keinuen izenak aipatuko ditut lehenik eta behin (*Soundpainting*eko beste keinu batzuk\* eranskinetan). Ondoren, keinu horietako bakoitza, *Soundpainting*aren sintaxiaren barnean zein lekutan kokatzen den eta erabili beharko den argituko dut. Azkenik, argazki baten laguntzaz, keinuaren esanahia eta egiteko era azalduko ditut.

### AHOTSAK (Nork)

Ahots-taldeak egin beharrekoa.

EGITEKO ERA: Eskuineko eskua ahoaren parean kokatu, hatz lodia gainerakoetatik banatuz. Ondoren, hatzak batu eta eskua ahotik aldentu.



### MUSIKARIAK (Nork)

Musikari-taldeak jo beharrekoa.

EGITEKO ERA: Ezkerreko eskua eskuineko eskuaren gainean kokatu, hatzak zabalik eta bularraren parean. Jarraian, bi eskuetako hatzak mugitu, txirula bat jotzen dela irudikatuz.



### DANTZARIAK (Nork)

Dantzari-taldeak dantzatu beharrekoa.

EGITEKO ERA: Edozein beso aurrerantz luzatu, esku-ahurra gora begira jarriz. Beste eskuko hatz erakuslea eta hatz luzea batu eta gorantz begira dagoen esku-ahurraren gainean kokatu. Azkenik, hatz erakuslearekin eta hatz luzearekin mugimendu zirkular bat egin.



### AKTOREAK (Nork)

Aktore-taldeak irakurri beharrekoa.

EGITEKO ERA: Ezkerreko besoa gorputzaren aurrean kokatu, 120° inguruko angelu bat osatuz, esku-ahurra aurpegirantz zuzentzen delarik. Beste besoko eskua bularrean pausatu.



### BERTSOLARIAK (Nork)

Bertsolari-taldeak abestu beharrekoa.

EGITEKO ERA: *Aktoreak* bezala baina, *Aktoreak* eta *Bertsolariak* bereizi ahal izateko, jarraian, nahi den eskuko hatz erakuslearekin eta hatz luzearekin “V” letra osatuko dugu, “2” zenbakia irudikatuz.



### BARRE EGIN (Zer)

Barre egin behar bada ere, ezin da modu natural batean izan; hau da, behartutako barrea izan behar du.


EGITEKO ERA: Eskuetako bat sabelean kokatu eta beste besoa gora igo 90°-ko angelua osatuz, esku-ahurra aurrera begira jarri. Jarraian, gerritik gora, gorputza atzerantz bota.



### HAIZE SOINUAK (Zer)

Ahoarekin egindako haize soinuak, *wooooooosh*, *sssssss*, *haaaaaaaa* izan daitezke; baina, txistu edo arnasketa soinuak ez dira onartzen.


EGITEKO ERA: Edozein eskurekin agur militar bat bezala; baina, ahotik hasita, ez kopetatik.



### DANTZARIA ALTXATU (Zer)

Dantzaria edo dantzari-taldea eserita dagoen lekutik altxatzeko eta prestatzeko keinua.

EGITEKO ERA: Edozein eskuko hatz guztiak itxi (ukabila) eta beste eskuko hatz erakuslea eta hatz luzea ukabilean pausatu. Jarraian, hatz erakuslea eta hatz luzea, ukabilaren gainean jarri, dantzaria zutik dagoela irudikatuz.



**DANTZARIA LEKU ALDATU (Zer)**

Dantzaria edo dantzari-taldea eszenatokian kokatzeko (hurbildu, aldentu...) keinua.

EGITEKO ERA: Besoetako bat aurrerantz luzatu, esku-ahurra gorantz begira jarritz. Beste eskua besoaren gainean jarriko da, esku-ahurra gorputzerantz begiratzen duelarik. Eskua gorputzerantz hurbiltzeak, dantzaria gerturatzea adieraziko du eta; eskua aldentzeak, dantzariak atzerantz egitea.

**AKTOREAK JARRAITU (Zer)**

Kontakizuna irakurtzen duen aktoreak bere egitekoarekin jarraitzeko keinua.

EGITEKO ERA: Ezkerreko besoa gorputzaren aurrean kokatu, 120° inguruko angelu bat osatuz, esku-ahurra aurpegiarantz zuzentzen delarik. Beste besoko eskua bularrean pausatu. Azkenik, ukabila itxi eta aurrerantz begira kokatu.

**PALETA (Zer)**

Emanaldiaren aurretik, bertsolari-, musikari- edo dantzari-taldeak esaterako, entseguetan adostutako eta prestatutako bertsoa, musika-lana edo koreografia.

EGITEKO ERA: Bi eskuak aurrez aurre kokatu, eskuetako bat zabalik utziz eta; beste ukabila, aurrekora itsatsiz. Jarraian, *Paleta* zenbakia adieraziko da, prestatutako musika-lan edo koreografia bakoitzari aurrez esleitutakoa.

**ORAIN JO (Noiz)**

Adierazitako materialaren berehalako hasiera adierazten duen keinua. Keinua bukatu bezain laster, inolako zalantzarik gabe, interpreteek egitekoari ekin behar diote.

EGITEKO ERA: Besoak, guztiz luzaturik eta lurrarekiko paralelo, gorputzaren atzekaldera zuzendu. Jarraian, besoak zurrun mantenduz, mugimendu leun baina azkar batekin aurrera eramango dira, aurrera pauso bat emanez. Azkenik, eskumuturren gorako mugimendu batekin, interpreteen hasiera zehatza adieraziko da.





**ORAIN ISILDU (Noiz)**

Aukeratutako interpreteek edo taldeek, adierazitako materiala irakurtzeari / abesteari / jotzeari / dantzatzeari uzten diote.

EGITEKO ERA: Besoak gorputzaren alde batera zabaldu, horietako bat sorbaldaren altuerara kokatuz eta; bestea, horrekiko paralelo. Esku-ahurrak



interpreteei begira mantenduz, gorputzaren beste aldera eraman, gorputzaren aurretik zeharkatuz. Mugimenduaren amaieran, eskuak itxiko dira, interpreteak isildu behar direnaren seinale.

Honekin, aurrez aipaturiko azpitaldeek egiteko jakin batzuk burutu beharko dituzte. Horrela, *Enara eta beste txoriak* alegia erreferentzia hartuta eta zuzendariarekin batera adostuz, aktore taldeak alegia nola irakurri erabakiko du; bertsolari taldeak, berriz, kontakizunarekin zerikusia duen errima eta bertso sorta bat osatuko du; bestetik, dantzari taldeak, aktoreek eta bertsolariek kontatzen dutenaren araberrako koreografiak prestatuko dituzte eta; azkenik, instrumentu desberdinen bitartez musikariek eta ahotsaren bidez ahots orkestrak, aktoreek irakurritako testua, bertsolariek abestutako bertsoak eta dantzariak dantzatzutako koreografiak girotu beharko dituzte, soinu efektuak gehituz.

**ENARA ETA BESTE TXORIAK**

**(AHOTSAK - HAIZE SOINUA)** , **(AKTOREAK)** Enara eta beste hainbat txori mota nekazari batzuei begira zeuden, soroetan liho-hazia ereiten ari ziren bitartean. **(DANTZARIAK - ALTXATU + LEKU ALDATU + PALETA 1)** , **(AKTOREAK - JARRAITU)** Honela esan zuen enarak:

- Nire lagunak, ez omen dakizue zertan ari diren ereile hauek: bada, zaudete lasai. Liho-hazia ereingo dute, lurra burdinazko zepiloaz pasa, kardatu, garbatu, apaindu, errokan bildu eta hari bihurtuta, gu harrapatzeko sareak egingo dituzte. **(MUSIKARIAK - PALETA 1)** Azkar ibili behar dugu: berandu dator sendagarria, gaitzak indarra hartzen badu. **(BERTSOLARIAK - PALETA 1)** , **(AKTOREAK - JARRAITU)** Har ezazue nire aholkua. Goazen guztiok bat-batean soroetara, hazia lurrera bota eta aitzurlari hauek alde egiten dutenean, jango dugu ezarri duten hazia: ez da liho-belarrik jaioko; ezingo dute sarerik egin ere. Hala gordeko ditugu geure buruak. Zenbat txori erori ote dira sareetan?

**(AHOTSAK - BARRE EGIN)** , **(AKTOREAK - JARRAITU)** Bilduta zeuden beste txoriek barre egiten zioten eta halaxe esan:

- Beldurtia, ikarakorra eta bihozgabea zara, enara. Etorkizun urrutian eta beharbada inoiz gertatuko ez diren kontuek sortzen al dizute halako larria? Oso burugogorra zara. Egin ezazu nahi duzuna; guk ez diogu geure buruari halako atsekaberik eman nahi.

- Ez? - esan zuen enarak - gogoratuko duzue noiz edo noiz. Hor konpon. Nik bakarrik ezin dut erein duten hazi guztia jan: ihes egingo dut soro eta landetatik etxeetara. Habe arteetan egingo ditut nire habiak; haziko ditut nire umeak; irakatsiko diet non bizi.

(**AHOTSAK - HAIZE SOINUA**) , (**AKTOREAK - JARRAITU**) Hurrengo urtean ibai batean goitik behera eta behetik gora hegaka zebilela, alboko soroetan txori asko sareetan sartuta ikusi zituen enarak, irten nahi eta atera ezinda. (**MUSIKARIAK - PALETA 2**) , (**DANTZARIAK - PALETA 2**) , (**AKTOREAK - JARRAITU**) Txori horien artean baziren hormatxoriak, txepetxak, birigarroak, zofoak, txantxangorriak, mikak eta txirriskilak. Ikusi zutenean enara han zebilela, libre, negarrez esan zuten:

- Ai! Enarak esandakoa sinetsi bagenu! Berak igarri zion zer gerta zitekeen. Bere esana egin bagenu, ez ginatkeen gaur estutasun honetan egongo. Galduak gara orain! (**BERTSOLARIAK - PALETA 2**)

(**AKTOREAK - JARRAITU**) Ikaskizuna: *Izan dadila aurrez begiratua, etorri ez dadin gero bekatua.*

### Argibideak

**DANTZARIAK - PALETA 1:** Zenbait dantzari lurra lantzen dabiltzala irudikatzen duten bitartean, gainerako dantzariak, inguruan kokatuko dira besoak txorien hegadak bezala mugituz.

**DANTZARIAK - PALETA 2:** Dantzariak besoak elkar-lotuko dituzte eta, mugimendu bortitzen bidez, askatu ezin direla irudikatuko dute.

**MUSIKARIAK - PALETA 1:** Haizezko instrumentuek soinu agudoak egingo dituzte, perkusiozko instrumentuek kolpe ahulak ematen dituzten bitartean.

**MUSIKARIAK - PALETA 2:** Perkusiozko instrumentuen kolpe motz eta gogorrak.

**BERTSOLARIAK - PALETA 1:** *Gaitza* hitzaren errimak (*haitza, eramangaitza, fidagaitza, menderakaitza...*).

**BERTSOLARIAK - PALETA 2:** Kopla txikia abestu (*Maritxu, nora zoaz? doinua*).

*Enarak gomendatu*

*gaitza saihestea,*

*kasurik egin gabe*

*hau atsekabea!*

## 9. Bibliografia

- BALDICK, C. (2008). *The Oxford Dictionary of Literary Terms*. Oxford University Press, London.
- BELDARRAIN, J. (2010). *Alegia klasikoak euskaraz. Isopeteko, La Fontaineren eta Samaniegoren alegien berridazketen azterketa*. (Doktorego Tesia) UPV-EHU, Donostia. <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/12307/BELDARRAIN%20AGUIRRE.pdf?sequence=1> [Berreskuratuta: 2018/01/15].
- BILBAO, B. ; EZKURDIA, G. ; PÉREZ, K. eta CHUECA, J. (2012). *Emakumeak. Hitza eta bizitza*. UPV-EHU, Bilbo.
- ETXEBARRIA, I. (2000). *Sorne Unzueta “Utarsus” (1900)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz. <http://www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/SORNE%20UNZUETA.pdf> [Berreskuratuta: 2018/03/01].
- EUSKALTZAINDIA (2008). *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo. [http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_xslt&lang=eu&layout=lth\\_detail&view=frontpage&Itemid=474&search=alegia](http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474&search=alegia) [Berreskuratuta: 2018/01/19].
- HABE ALDIZKARIA (2009). *Esopo. Alegiak* (Iñaki Mendigurenen itzulpena eta koordinazioa). Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Donostia.
- KORTAZAR, J. (1986). *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Desclée de Brouwer, Bilbo.
- KORTAZAR, J. (2006). *Lauaxetaren biblioteka*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- LÓPEZ-CASANOVA, A. (1994). *El texto poético. Teoría y metodología*. Ediciones Colegio de España, Salamanca.
- NØJGAARD, M. (1964). *La Fable antique. Tome Premier. La Fable grecque avant Phédre*. Nyt Nordisk Forlag, Kopenhage.
- SARASOLA, I. (2007). *Euskal hiztegia*. Elkar, Donostia.
- URKIAGA, E. (1982). *Azalpenak. 1931-1935* (Jon Kortazarren edizioa). Labayru, Bilbo.
- URKIAGA, E. (1985). *Lauaxeta. Olerkiak* (Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiaren edizioa). Erein, Donostia.
- URKIZA, J. eta URIBARREN, P. (2001). Euskara euskaldunon hizkuntza nazionala. *Karmel*, 3, 3-27.

## **ERANSKINAK**

## Otsokorena

### I

Zidar-uledun otsoko  
ibai ori dokan zabala!  
Beste aldean ba'engo  
arkuma eukek jan ala.  
Gose orrentzat bazkari  
bildots zuriak yagozak  
bedar ezin dantzari.  
¡Metu egixak agiñak!  
Zidar uledun otsoko  
ibai ori dokan sakona!  
¡Sakerak yaukon ontzitto  
ibairako dokan ona!

### II

-Sakera, saker lagunoi,  
pagua eder mendijan;  
baña ire tayu lardenoi  
ederrago dok ontzijan-.  
-Neure otsoko potoko  
txorija eder egaizka:  
ekar egistak usoko  
ta igaroko aut arinka-.  
-Sakera, saker argija,  
iru egi ixango dozak  
eure lan orren sarija.  
Igi egixak arraunak-.

III

-Neguba baño leunago  
udea yabilk baratzan-  
¡Urretxindor ori ago  
kanta-kantari zugatzan!  
Ibai-erdijan batela  
au zan bigarren egija:  
-Iñoiz etxuak upela  
eure jarrai, moskortija-  
Beste aldia ikuturik  
olan mintza zan otsoko:  
-Lana ba-dagik dubarik  
eztok jango ogittan asko!-

IV

Zidar-uledun otsoko  
ibai ori dok sakona!  
Sakerak yaukon ontzitto  
ibairako dokan ona!  
Otsoko eta sakera  
alkarren jarki yabiltzak.  
Ene artzain bildur-bera  
bildots zurijak nun dozak?  
Tarranpatan-tan, tarran-pan,  
-bare dok ibai zabala-  
otsoko ba-yabilk dantzan  
arkuma yok, ba, jan ala.

### Udabarriko autorkuntza

Din-dan, balendan,  
elixako atetan  
gixon bat dilindan.

-¿Zer egin dozu pekatu  
pagoen lagun bakarra?-  
-Ote -lore bat triskatu  
eta samindu dut larra-.

-Ori eztozu pekatu.  
Mendi-usañez eskubak  
ezin daikezuz orbandu.  
¡Zabalik dozuz zerubak!-

Din-dan, balendan,  
elixako atetan  
gixon bat dilindan.

-¿Zer egin dozu pekatu  
izarren izpi-zalia?-  
-Abo gorri bat laztandu  
axe yatan, ba, mattia-.

-Ori eztozu pekatu.  
Neskutz-usñez espanak  
ezin daikezuz orbandu.  
¡Zabalik dozuz zerubak!-

Din-dan, balendan,  
elixako atetan  
gixon bat dilindan.

-¿Zer egin dozu pekatu  
piztijen etsai ankerra?-  
-Ene emaztetxuba urkatu  
ordia zan, ba, ta alperra-.

-Ori, eztozu pekatu.  
Odol gorrijaz eskubak  
ezin daikezuz orbandu.  
¡Zabalik dozuz zerubak!-

Din-dan, balendan,  
elixako atetan  
gixon bat dilindan.

-¿Zer egin dozu pekatu  
zelai ezeko anka-arin?-  
-Apez-ardua bukatu  
axe bai-yatan atsegin-.

-¡Ori da, ori pekatu!  
Parka-eza dan obenak  
gogua dautzu orbandu.  
¡Eruan zagiz txerrenak!-

Din-dan, balendan,  
elixako atetan  
gixon bat dilindan.



### **Ikerren erantzuna**

Erkaldarren etxian  
Ikurrin zabala.  
Onetzaz mintzalari  
Ikasle garbala.

-«Umiok, beti matte»  
«ikurrin ederra».  
«Agertu beti orri»  
«gogoen eskerra».

Peru mintzatzen zala  
eldu zan axia.  
Ikurriña zibuka  
arro zan eun mia.

Ikasle malmutz arek  
umiai iñotsoen:  
-«Orra aberri amea»  
«guztijok laztantzen».

«Sari bat artuko dau»  
«sari ederrena»,  
«onetzaz diraustanak»  
«oldozkun gurena».

Umiak au ta ori  
erantzun eutsoen.  
Baña Ikertxuk, ixilik,  
ez eban jardesten.

-«Ikurrin eder orrek»  
«zer esaten dautzu?»  
«Axe-ziar zibuka»  
«mattatzen eztozu?».

«Erantzun egistazu»  
«euskotar zitala!»  
Zibu orreik dirauste  
axe ona dala!

**Larrosea eta txarrija**

(Alegija)

Txoritokittik landara  
atera eben txarrija.  
Arin-arin basatara  
sartu zan, orruz, piztija.

Mustur-okerraz basatza  
usartu eban sastarrak.  
Onetan larrosa aratza  
begijan eukon bedarrak.

Lorondo-puntuan eguan  
larrosa sortu-barrija.  
Distiraz eukon altzuan  
goxeko garo garbija.

Laster aginka txarrijak  
apurtu eban gaxua.  
-Zergaitik neure orrijak  
laskitu dozuz, gaiztua?-

Basatzen barriz musturka  
asi zan txarri ayerra.  
Ta esan eutson erruka:  
-Zegattik az ain ederra?-

*Olan, iñoren ederrak  
min-dagitsoe askori.  
Bai-dira txarri ayerrak  
ludi onetan ugari.*

## **Gaztaya ta katuba**

(Alegija)

*Mikel, abertzale gasteari, mattez.*

Gaztaya eukon atsuak  
arasa baten zainduta.  
Baña sagutxu gaiztuak  
ozka itxi eutsen galduta.

Apari ona jateko  
gabero euken gaztaya.  
Eldukozan baña agudo  
oturuntz arein amaya.

Arexek galdu gurarik  
ekarri eban katuba.  
Laster ixango bat-barik  
arasearen barruba.

Katu-gorri, bixar-zuri  
arro ebillan etxian.  
Oñez-nagi, begiz-argi  
urdairik etzan bakian.

Arasan sartu katuba  
ta oiratu zan atsua.  
¡Axe ba-zala a zeruba  
gaztayen usain gozua!

Atsuak jagi zanian  
zabaldu eban arasa  
Katuba sagu-artian  
ase eguan lasa-lasa.

Ez urdairik, ez gaztarik  
arasan ezan geldittu.  
Baña katu ta sagurik  
gosiaz ezan garbittu.

*Iñoren kontuz eurerik  
ez egik itxi sekulan.  
Arrotzak alkar il-barik  
batuten dozak beinguan.*

### **Txitxeak eta miruba**

(Alegija)

Olluak klo-klo egijan  
pi-pi txitxeak ostera.  
Olantxe baratz erdijan  
ebiltzan danak erara.

Ameak jana billatu  
eta txitxeak iruntsi.  
Arrik an etzan geratu,  
goserik ezan ikusi.

Txitxeak ziran orijak,  
anka-txiki, luma-eder.  
Etxe onetan gustijak  
egoten ziran eskijer.

Bat baña danen galbide  
etzan an bizi poz-pozik.  
Buru-arin, piku-luze  
urrun joan zan etxetik.

Miru jauna, jaun bijurrak  
ezautu eban txitxea.  
Konpondu ziran maltzurak  
eta gertau eben tranpea.

«Zeure lagun, lagun ona  
iraungo yuat ludijan.  
Alkarrekin zorijona  
billauko yoguk mendijan».

Miru aren itz gaiztuak  
ziñistu euzan txitxeak.  
Eta gau baten gaxuak  
iri eutsozan atiak.

Laster jarri zan miruba  
txitxa politen artian.  
Zorrotza eukon pikuba,  
eta gosia erpian.

«Azke-azke mendi-goyan  
neugaz bixiko zarie.  
Ama orrek etxe-esijan  
beti euki nai zattube».

Mirubak eta txitxeak  
zauritu eben ollua.  
Eta ama barik gustijak  
goitu eben areyua.

Eriotza ta zaurijak  
antxe ixan ziran ugari  
Ordaintze ona pistijak  
emon eutsoen txitxari.

¡Iñoren sorosi-bari  
miru txarraren ekiñak!  
Gustijak erail eziñik  
zauritu euzan geyenak.

*Arrotz baten lagun-nayez  
ez galdu iñoz anayak.  
Etxeko baten obenez  
sortuten dozak etsayak.*

### **Loreak eta eguzkija**

(Alegija)

Ur-ondoan ziran, loreak  
axe samurren usaingarri.

Eguzkiaren mattagarri  
Kulunka ona, kulunka ara  
gustijak  
pozik egozan berotara.

Eguzki-kalda lur-ganian  
loreak zimeltzen ebillan  
Aldezleri iñorez garillan.  
Sutago goitik eguzkijak  
unian  
legor ziran orri gustijak.

Ama-samur orra odeya  
lora ta eguzki-artian.  
Itzal leuna lora-ganian  
orriño ororen mosulari.  
Ken-deya  
egin eutsen, baña, itzalari.

-«Kendu adi, odei aztuna  
ezin yoguk eguzkija ikus»-  
-«Lora-taldiak ezin nakus.  
Eztau euki gura onduan  
zoruna»  
negarrez itzalak iñuan.



Eta negar-malko bigunak  
jausi ziran loren altzora.  
Tanta jausi yaken kolkora.  
Eta odei aren malkuak,  
        itunak,  
alaitu ebezan gaxuak.

Lora onein legez zoruak  
kenduten dabe laguntzea.  
Baña adizkide egizkua  
ezta aldentuten orregaitik  
        Goguak  
eztabe galtzen laguntzarik.

**Mutiltxuba eta erlia**

(Alegija)

Mitxeleta bat eta erlia  
egaizka lili-artian  
mutiltxu batek ikusi euzan  
baratz-alaiko bakian.

Mitxeletaren margo polittak  
zoratu eben mutilla  
Lorarik-lora arin ebillan  
margo eder areik billa.

Erle maratzak ots-egin eutsan:  
-Ez adi joan iñora.  
Mitxiletan autsa dok soilki.  
Ator, bai, neure ondora.

Ezti gozua emen yaukuat  
lore gustijen mosuba  
Baina mutillak apurtu eutsan  
ezti-beraska txautuba.

Onez ganera atrapau eban  
mitxeletatxu liraña.  
Laskitu eban bere oñakaz  
loratza oso bikaña.

Ordun erleak, erletxu onak  
sartu eutson, bai, eztena.  
-Ezkar txarreko mutil gaiztua  
ea azan lukur-zekena.

*Mutiltxu onen antzeko asko  
ba-dira gure artian.  
Baña txarraren azkena, laster,  
elduten yake ludian*

**Mutiko gaiztua**

(Alegija)

Txoririk ederrena  
txaki baten eguan,  
kanta kantari beti  
alai egun osuan.

-Seme, txaki orretan  
iñoz ezadi sartu.  
Txori orren bakia  
ezegik artegatu.

Amearen esana  
aiztu eban gaztiak.  
Txorija ikusi nairik  
zabal-euzan atiak.

Baña, zabal orduko  
aldendu zan txorija.  
Eguak axe-ziar  
billau eban mendija.

Mutillaren negarrak  
ikusi euzanian  
txorijak esan eutson  
egaiz egaiz ortzian

-Amearen esana  
egin ba-zeban ondo  
zigor bildurrik orain  
ezenduke, mutiko.

*Txarra egin baño len  
ez aiztu gerokorik.  
Negarrak eztaukalako  
zuzenduten okerrik.*

**Soundpaintingeko beste keinu batzuk\***

**BEGIRATU / ADI EGON (Nork)**

Jendeak arreta jartzeko erabiltzen den keinua da hau. Esaldi berri bat sortu nahi denean, interpreteen arreta erakartzeko erabili beharrekoa.

EGITEKO ERA: Edozein eskuko hatz erakuslearekin eta hatz luzearekin “V” letra osatu eta begien azpian kokatu.



**TALDE OSOA (Nork)**

Talde osoak, interprete guztiek egin beharrekoa.


EGITEKO ERA: Bi besoak buru gainean kokatu, hatz puntak ukituz, arku bat osatzeko.



**TALDEAK (Nork)**

Entseguaren edo emanaldiaren aurretik osatutako eta zehaztutako taldeek egin beharrekoa.


EGITEKO ERA: Bi eskuak itxi eta ukabil bat besteren gainean kokatu. Ukabil baten azpiko aldearekin bestearen goiko aldeari kolpe txiki bat eman, jarraian, goian dagoen eskuarekin taldearen zenbakia zehaztuz: 1. taldea, 2. taldea...



**BATETIK BESTERA (Nork)**

Zuzendariak aukeratutako interpreteak egin beharrekoa.

EGITEKO ERA: Bi eskuetako hatz guztiak itxi, hatz erakusleak izan ezik. Ondoren, nahi diren interpreteak seinالاتu egingo dira txandaka, banaka egitekoa burutu dezaten.



**KOLPEA (Zer)**

Soinu motza.

EGITEKO ERA: Bi ataletan banatzen da: Prestatu eta ekin. Bi eskuetako hatz erakusleak eta hatz lodiak elkartuz eta gainerako hatzak




zabalik utziz, eskuak, burua baino pixka bat gorago eta aurrerago kokatuko dira. Interpreteek soinu edo mugimendu motza burutzeko, zuzendariak hatzak askatu gabe, ibilbide txikiko kolpe lehor eta motz bat emango du, aldi berean aurrera pauso bat ematen duelarik.

### **GORPUTZ PERKUSIOA (Zer)**

Gorputzeko edozein atal laztantzearen / ukitzearen / kolpatzearen ondorioz sortutako soinua.


**EGITEKO ERA:** Eskuineko esku-ahurra gorputzera begira kokatuz, burutik gerriraino igaroko dugu, eskaner baten gisa. Jarraian, esku bakoitzean makila bat edukiko balitz bezala, danbor bat jotzen dela irudikatuko da.



### **JARRAITU (Zer)**


Interpretea edo taldea egiten ari denarekin jarraitzeko keinua.

**EGITEKO ERA:** Esku bat bestearen atzean bular parean jarri, hatzak batuz eta esku-ahurrak gorputzera zuzenduz. Ondoren, mugimendu zirkular bat egin, esku bat bestearen gainetik igaroz.



### **ESKANEATU (Zer)**

Eskaneatzen ari den besoa bere aurretik pasatzen den unean, interpreteak inprobisazio aske bat egiten du. Era berean, besoa bere aurretik igaro ondoren, egiteari uzten dio.



**EGITEKO ERA:** Besoetako bat gorputzaren albo batera zabaldu, sorbaldatik 30° inguruko gorako angelu bat sortuz. Hatzak batu eta esku-ahurra interpreteei begira jarriko da. Besoa zurrun mantenduz, interpreteen buru gainetik pasatuko du zuzendariak.

### **-REKIN (Zer)**

Elkartze-keinuak batzeko erabiltzen da honakoa.

EGITEKO ERA: Eskumuturretatik eskuak gurutzatu, hatzak elkartu eta esku-ahurrak kontrako norabideetara begira kokatu.



### **BOLUMEN KONTROLA (Nola)**

Bolumena igo edo jaisteko keinua.

EGITEKO ERA: Bi besoetako edozein ukondo 90°-ko angelua osatuz okertu eta ukabila itxi. Beste eskuarekin, hatz erakuslearen eta hatz luzearen laguntzaz, “V” letra osatu eta hasierako besoaren gainean kokatuko da. Nahi den bolumena adierazteko, “V” letra osatzen duten hatzak gora eta behera mugituko dira. Besoaren goiko aldean *fff* (*fortississimo*) den bitartean; beheko aldean, ukondoan berriz, *ppp* (*pianississimo*) izango delarik.



### **ABIADURA KONTROLA (Nola)**

Abiadura handitzeko edo txikitzeke keinua.

EGITEKO ERA: Bi besoetako edozein ukondo 90°-ko angelua osatuz okertu eta eskuko hatzak luzatu. Beste eskuko hatzak batu eta, esku-ahurra lurrerantz begira jarritz, hasierako besoaren gainean kokatuko da. Nahi den abiadura adierazteko, eskua gora eta behera mugituko da. Besoaren goiko aldean abiadura handia den bitartean; beheko aldean, ukondoan berriz, abiadura motela izango delarik.

